



Elorrioko udala

IRAGARKIA

Elorrioko Udalak 2024rako ikasketek eragindako garraio gastuetarako dirulaguntza deialdia onartzea (2024-00216 espedientea)

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko martxoaren 1ean egindako bilkuran, 2024rako ikasketek eragindako garraio gastuetarako udalaren dirulaguntza deialdia onartzea erabaki zuen. Beraz, dagozkion oinarri espezifikoak osorik argitaratzen dira.

Deialdi hau 2008ko abenduaren 18an egindako Ohiko Osoko Bilkuran onartutako Dirulaguntzen Oinarri Arautzaileen arabera egin da (2009ko martxoaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuak). Bi aldaketa izan zituen: lehena, 2010eko otsailaren 11n Osoko Bilkurak onartua (eta maiatzaren 10ean BAOn argitaratua) eta bigarrena, 2011ko abenduaren 28an Osoko Bilkurak onartua (2012ko otsailaren 10ean BAOn argitaratua).

Elorrio, 2024ko martxoaren 21a

Julene Lazkano Zenitagoia

Alkatea



ELORRIOKO UDALAK 2024RAKO IKASKETEK ERAGINDAKO GARRAIO GASTUETARAKO EMATEN DUEN DIRULAGUNTZA ARAUTZEN DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK.

Elorrioko Udalak Diru-laguntzen Oinarri Erregulatzailerak onartu zituen 2008ko abenduaren 18an batutako Udalbatzaren Ohiko saioan, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2009ko martxoaren 9an argitara eman zirenak. Horri eta Udalaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoari jarraiki, diru-laguntzak eskatzeko deialdia egiten dut, ondoko oinarrien arabera.

1. HELBURUAK ETA DOTAZIOA

Elorrioko 18 eta 30 urte bitarteko gazteen unibertsitaterako edo heziketa zikloetarako sarbidea sustatu eta diruz laguntzeko prozedura arautzea.

2023-2024 ikasturtean Elorrioko gazteek 115 kilometro baino gutxiagotara dagoen unibertsitate edo ikasketa-zentro batera joateko egunero edo ia egunero izan dituzten garraio gastuak diruz laguntzea. Horretarako 2.000,00 euroko diru-izendapena dago 3341.481.25 (Unibertsitatara joateko gazteentzako diru-laguntza) partidan.

Aurrekontu-atal honetan, diru-laguntzetarako behar izanez gero, diru-hornidura gehigarria egin daiteke, hartarako deialdi berririk egitea beharrezkoa izan barik.

2. ONURADUNAK

Eskatzailea pertsona fisikoa izango da eta betebeharrak hauek ditu:

1. 38/2003 Legeak, Diru-Laguntzen Orokorra, 13. artikuluan edo Diru-Laguntzen Udal Ordenantza Orokorra 10. artikuluan jasotzen dituen egoeretako batean ez egotea. Ezta dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiboa izatea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean egotea. Martxoaren 16koa 1/2023 Legegintzako Dekretuak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistatik gabe Bizitzeko Legean jasotakoak barne.
2. Ahal dela euskara erabiliko da administrazioarekiko harremanetan.
3. Elorriko erroldatua egotea, deialdi hau egiten den unean baino gutxienez 12 hilabete lehenagotik.
4. Eskaera egiteko unean 18 eta 30 urte bitartekoa izatea.
5. urritik maiatzera bitarteko azken ikasturtean:
 - a. langabezian egon izana edo gehienez ere 250 orduz lan egin izana (ikasketengatik egindako lan praktikak ez dira zenbatuko atal honetan).
 - b. egunero edo ia egunero 115 kilometro baino gutxiagotara dagoen unibertsitate edo ikasketa-zentro batera joan izana garraiobide partikular zein publikoz.
 - c. honako ikasketa hauetakoren batean aritu izana:



- Goi-mailako Hezkuntzako Europar Esparrura egokitutako ikasketak Gradua edo Master-titulu ofizialak lortzeko direnean.
 - Honako titulu ofizialak lortzeko unibertsitateko ikasketak: Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura, Diplomatura, Maisu, Ingeniari tekniko edo arkitekto tekniko.
 - Kreditu osagarriak edo trebakuntza osagarriak Masterra edo Gradua egiteko edo lizentziaturako ikasketa ofizialekin jarraitzeko.
 - Goi mailako heziketa zikloak.
- d. gutxienez 18 kredituren azterketetara aurkeztu izana unibertsitate-ikasleen kasuan eta ikasgaien erdientetara gainontzeko kasuetan.

3.ONURADUNA IZATEKO DEBEKUA

Ezingo dute deialdi honetan parte hartu dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dien zehapen administratibo edo penalik dutenek, ez eta horretarako ezgaitzen dituen legezko debekurik dutenek ere. Bereziki, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan zehaztutakoak.

Ezingo dira onuradun izan administrazio-bidean, lan-bidean edo zigor-bidean berdintasun-eskubidea urratzeagatik eta sexuan oinarritutako bereizkeriari egiteagatik zehazpen irmoa jaso duten pertsona edo entitateak.

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrikoak, xedatzen dituzten betebeharrak betetzen ez dituztenak.

Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiboa izatea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean egotea, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenaren edo martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkerian erortzeagatik gertatutakoak barne.

4. EMATEKO PROZEDURA ETA IRIZPIDEAK

Dirulaguntzak emateko prozedura lehiaketa izango da.

Honakoak izango dira dirulaguntzak, gehienez:

TARTEAK / TRAMOS	LAGUNTZAREN ZENBATEKOA / IMPORTES
I.tartea / tramo	300,00 €
II.tartean / tramo	200,00€
III.tartean / tramo	100,00€
IV.tartean / tramo	50,00€



Ematen diren dirulaguntzen batuketak kreditua gaintzen badu, baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztien artean proportzionalki banatuko da.

Emango diren dirulaguntzak familia-unitatearen diru-sarreraren arabera izango dira eta hauek 4 tartetan sailkatzen dira:

1. TARTEA / 1 ^{ER} TRAMO		2. TARTEA / 2 ^O TRAMO		3. TARTEA / 3 ^{ER} TRAMO		4. TARTEA / 4 ^O TRAMO	
*Kideak.	Errenta-mugak /	*Kideak.	Errenta-mugak /	*Kideak.	Errenta-mugak /	*Kideak.	Errenta-mugak /
*Miembros	Límites renta	*Miembros	Límites renta	*Miembros	Límites renta	*Miembros	Límites renta
3	18.269,18 €	3	22.421,07 €	3	30.634,12 €	3	45.963,44 €
4	21.009,42 €	4	25.782,83 €	4	35.227,10 €	4	52.854,74 €
5	24.160,62 €	5	29.651,34 €	5	40.512,11 €	5	60.784,38 €
6	27.785,37 €	6	34.099,30 €	6	46.591,51 €	6	69.905,91 €
7	31.952,53 €	7	39.213,47 €	7	53.577,95 €	7	80.388,36 €
8	36.746,35 €	8	45.096,03 €	8	61.616,92 €	8	92.450,02 €
9	42.257,49 €	9	51.859,21 €	9	70.856,58 €	9	106.313,20 €
10	48.595,67 €	10	59.639,63 €	10	81.489,57 €	10	122.266,93 €

* Familia-unitatea osatzen dute gurasoek eta errenta aitopenean zehaztutako seme-alabek. Alargunak edo aita/ama bakarrek direnean kide bat gehituko da.

* Eskaera egiten duen pertsona emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimak bada eta hori egiazten duen dokumentazioa badu, diru sarreraren arabera dagokiona baina goragoko hurrengo tartea balioztatuko zaio.

a) Familia-unitatearen errenta-maila finkatzeko, sarrera garbiak hartuko dira kontuan. Sarrera horiek, familia-unitateak egindako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren likidazioaren zerga-oinarri orokorrari kuota likidoa kentzearen emaitzak izango dira. Aurrezte zerga-oinarri ere zenbatuko da.

Banako aitorten kasuan, bi aitorten batura izango da kalkulua.

Estimazio objektiboko edo zuzeneko estimazioko zerga-erregimenera bilduriko jardueren enpresarialak eta profesionalak badira, irizpide errealek aplikatuta egingo da errendimenduen estimazioa.

b) Egoera berezian dauden pertsonen kasuan, kasu bakoitza bereiz eta banaka balioetsiko da, eta gerta liteke bikotearen diru-sarreraren justifikaziorik zertan aurkeztu ez izatea.

Elorrioko Udalak egokitzen jotzen dituen informazioa eta agiri osagarriak erreklamatu ahal izango ditu kasu bakoitzaren inguruabar bereziak ezagutzeko.

5. ESKARIAK: EREDUA, AGIRIAK, LEKUA ETA EPEA.

Elorrioko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira irailaren 30a eta urriaren 25a bitartean 8:00ak eta 14:00ak artean. 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aurreikusten dituen gainerako bideen bitartez ere aurkeztu ahal dira.



Aurkeztuko dira dokumentu hauek guztiak:

- a. Dirulaguntza honetarako eskari-orria datu pertsonalen ingurukoa (I. eranskineko eredia) eta deialdiaren baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatzen duen zinpeko aitorpena (II. eranskineko eredia)
- b. 2023-2024 ikasturtean matrikula egin izanaren egiaztageria, honakoak zehaztuko dituen: ikasketa-zentroa, ikasketak eta, unibertsitate ikasketen kasuan, kreditu kopurua ere bai.
- c. Unibertsitateko ikasketen kasuan, gutxienez 18 kredituri dagozkien azterketetara aurkeztu izanaren egiaztageria eta azterketen erdira gainontzekoetan 2023-2024 ikasturtean zehar.
- d. Gizarte Segurantzaren lan-bizitza agiria 2023ko urriaren 1a eta 2024ko maiatzaren 31 bitartekoa.
- e. Familia-unitatearen 2023ko errenta aitorpena.
- f. Hirugarrenen alta behar bezala beteta.

Ofizios egiaztatuko da eroldari buruzko baldintza.

Eskaera egitean eskatzaileak oinarri hauek eta deialdia baldintza barik onartzen ditu, eta baimena ematen dio Elorrioko Udalari beharrezko egiaztapenak egiteko.

Udalak sei hilabete baino lehen egin beharko du instrukzioa eta erabakia eman.

6. PROZEDURA, INSTRUKZIOA ETA ERABAKIA

Eskariak aurkezteko epea amaituta, eskariak aztertuko dira eta premiazko eskea egingo zaie interesdunei hamar eguneko epean falta den dokumentazioa aurkez dezaten. Eta jakinaraziko zaie okerrak zuzendu ezean eskaera atzera egindakotzat joko dela.

Aurkeztutako eskabideak aztertu ondoren, Gazteria Sailak txosten bat egingo du, eta, txosten horretan, gutxienez, honako hauek jasoko dira: ezetsitako eskabideak, ezesteko arrazoiak, baietsitako eskabideak, lortutako puntuazioa, eman beharreko laguntzen zenbatekoa eta oinarri hauetan aurreikusitako baldintzak betetzea.

Organo instrukzio-egileak ebazpen-proposamena egingo dio organo emaileari, alkateari alegia, baina, kasu horretan, Tokiko Gobernu Batzarraren esku utziko du dirulaguntzen izapidetzea.

Instrukzio-organoak, espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Proposamen hori interesdunei jakinarazi beharko zaie deialdiak ezartzen duen moduan, eta 10 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.

Birformulazio edo uko egite kasurik egon ezean, emandako diru-laguntza onartzen dela ulertzen da.

Hartutako erabakiak administrazio bideari amaiera emango dio, eta erabakiaren kontra Udaleko alkatearen aurrean berraztertze errekurtsoa tartekatze aukera egongo da, edo baita zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa tartekatze Bilboko dagokion



auzitegian. Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua eta hurrengoek, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen arabera.

Fase honetan Elorrioko Udalak, instrukzio organoaren bitartez, aurkeztu diren proposamenak konparatu eta baloratu beharko ditu, onuraduna nor izango den zehazteko emakume eta gizonen arteko berdintasun irizpidea kontuan hartuz

7. BATERAGARRITASUNA

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo xede bera duten beste baliabide batzuekin edo egoitzak sortzen dituen gastuak finantzatzeko direnekin, hauek edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutik datozela, berdin dela nazionalak izan edo Europako Erkidegotik edo nazioarteko erakundeetatik etorri.

8. PUBLIZITATEA

Ez da egoki dirulaguntza honetan.

9. ORDAINKETAK

Erabakia ematean, onuradunei %100 ingresatuko zaie, ordainketa bakar batetan.

10. ARAU-HAUSTEAK, ZEHAPENAK ETA ITZULKETAK

Arau-hausteak egitea eta zehapenak ezartzea, bai eta dirua itzultzeko arrazoiak ere, Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera arautuko dira

11. ZURIKETA

Ez dagokio dirulaguntza honi.

12. ERREKURTSOAK ETA AURKARATZEAK

Interesdunek oinarri hauen eta hauetatik eratorriko diren administrazio-egintzen kontra jo dezakete, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena, aurreikusten duen kasuetan eta eran.

13. DATU-BABESA

Elorrioko Udalak (aurrerantzean, "Udala"), IFZ: P-4803900-B, eta helbidea: Gernikako Arbola plaza 1 (48230), Elorrion (Bizkaia), emandako datu pertsonalak erabiliko ditu dirulaguntzen deialdi hau kudeatzeko. Tratamendu hori legitimatzen duen oinarria da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren ondoriozko legezko betebeharrak bat betetzea.



Elorrioko udala

Datu horiek behar-beharrezkoak diren zerbitzuak ematen dituzten hirugarrenei baino ez zaizkie jakinaraziko, eta ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharra edo interes publikoa izan ezik.

Elorrioko Udalak datu pertsonalak gordeko ditu erantzukizunen bat eska dakioken legezko epean.

Dirulaguntzen deialdi honetan eskatutako datuak behar-beharrezkoak dira lehen adierazitako helburua behar bezala lortzeko; beraz, datu horiek eman ezean, Udalak ezin izango du bermatu prozeduran behar bezala parte hartuko duenik.

Nolanahi ere, interesdunak datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango ditu, alkatea@elorrio.eus helbidera idatzizko eskaera bidaliz. Interesduna harremanetan jarri ahal izango da Udaleko Datuen Babeserako Ordezkararekin (DPO), helbide elektroniko honetan: dpo@elorrio.eus

Era berean, jakinarazten dizugu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazioa aurkezteko eskubidea duzula.

14. KLAUSULA GEHIGARRIA

Oinarri espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan Oinarri Erregulatzaileretan ezarritakoa izango da aplikagarria.

Halaber, 38/2003 Diru-laguntzen Lege orokorrean eta bat datozen gainontzeko lege arauetan ezarritakoari atxikiko zaio.

15. ARAUBIDE JURIDIKOA

Oinarri hauetan aurreikusi ez denerako honako hauetan aurreikusitakora joko da: Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorra (2010eko maiatzaren 10eko 86 BAO), azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzen Orokorra, eta 887/2003 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duena.



Elorrioko udala

I.ERANSKINA ESKABIDE-ORRIA

18 ETA 30 URTE BITARTEKOENTZAKO IKASKETEK ERAGINDAKOGARRAIO-GASTUETARAKO DIRULAGUNTZA

IKASLEAREN DATUAK

Izen-abizenak:	NANa:
Helbidea:	Tel:
Jaiotze-data:	Posta-e:

DIRULAGUNTZA KONTU-ZENBAKI HONETAN INGRESATZEA ESKATZEN DUT:

IBAN	ERAKUNDEA	AGENTZIA	K.C.	K/KORRONTEA
E S				

Zin egiten dut, deialdiko betebeharrak guztiak betetzen ditudala.

Elorrio, _____

(data)

(sinadura)

Erantsi beharreko dokumentazioa

- ☐ Matrikula egin izanaren egiaztagiria, honakoak zehaztuko dituenak: ikasketa-zentroa, ikasketak eta, unibertsitate ikasketen kasuan, kreditu kopurua ere bai.
- ☐ Unibertsitateko ikasketen kasuan, gutxienez 18 kredituri dagozkien azterketatara aurkeztu izanaren egiaztagiria eta azterketen erdira gainontzekoetan.
- ☐ Gizarte Segurantzaren lan-bizitza agiria 2023ko urriaren 1a eta 2024ko maiatzaren 31 bitartekoa.
- ☐ Familia-unitatearen 2023ko errenta aitortpena.

Datuen babesa

Datuen babesari dagokionez, dirulaguntza deialdi hau arautzen duten oinarrien 13. atalean ezarritakoaren arabera arautuko da.

Udalak betetzeko datuak

- ☐ epea
- ☐ adina
- ☐ zorra
- ☐ errolda
- ☐ ikasketa mota
- ☐ azterketak
- ☐ langabezia

DIRU-LAGUNTZA

- ☐ Bai. Tarteak: _____
Zenbatekoa: _____
- ☐ Ez. Arrazoiak: _____



II ERANSKINA

ZINPEKO AITORPENA

Nik, NAN zk.: dudanak, eta
helbidea(udalerrria)kalekozenbakian....., honako hau

AITORTZEN DUT:

- 1) Ez nagoela azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3 zatiek dirulaguntzak jasotzeko bateraezintasun ez eta debeku-kausatzat finkatzen dituztenetako batean ere.
- 2) Zerga guztiak ordainduta ditudala, eta ogasun eta gizarte segurantzako betebeharrak betetzen ditudala.
- 3) Dirulaguntza hauek lortzeko oinarrietan ezarritako baldintza guztiak betetzen ditudala.
- 4) Ez dut administrazio-bidean, lan-bidean edo zigor-bidean berdintasun-eskubidea urratzeagatik eta sexuan oinarritutako bereizkeriari egiteagatik zehazpen irmoa.
- 5) Betetzen ditut Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bateginak ezarritako betebeharrak guztiak
- 6) Honako egoeretako batean nagoela (dagokion laukian X bat jarri, eta dirulaguntza bat jaso izanaren kasuan bete):

☐ Honako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak ESKATU ditut:

Emon duen organoa	Eskatutako zenbatekoa	Bateragarritasuna edo bateraezintasuna
1.		
2.		
3.		

☐ Honako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak JASO ditut:

Emon duen organoa	Lortutako zenbatekoa	Bateragarritasuna edo bateraezintasuna
1.		
2.		
3.		

☐ EZ DUT BESTE INOLAKO DIRULAGUNTZA, laguntza, diru-sarrera edo baliabide eskatu inbertsio honetarako ez erakunde publiko batean, ez pribatuan, nazionala edo nazioartekoan.

Eta honela jasota gera dadin, eta dagozkion ondorioak sor ditzan, nik luzaten dut, 2024koren ..(e)(a)n.

Sinadura

HIRUGARREN ALTA / ALTA DE TERCERAS PERSONAS

A HIRUGARRENAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK / DATOS IDENTIFICATIVOS DE LAS TERCERAS PARTES

NAN / AIZ / IFZ – DNI / NIE / NIF:

ENPRESAREN IZENA edo PERTSONA FISIKOAREN IZENA /RAZÓN SOCIAL ó NOMBRE PERSONA FÍSICA:

HELBIDEA / DOMICILIO:.....

POSTA KODEA / CÓDIGO POSTAL:..... **UDALERRIA/POBLACIÓN:**

LURRALDEA / PROVINCIA: **TELEFONO(AK):** **E-POSTA/CORREO E.**

ESKABIDEARI DAGOKION KOMUNIKAZIOA JASO NAHI DUT

DESEO RECIBIR LA COMUNICACIÓN REFERIDA A ESTA INSTANCIA EN:

 EUSKERAZ

GAZTELANIAZ

B ORDEZKARIEN DATUAK / DATOS DE LAS PERSONAS REPRESENTANTES

Abizenak / Apellidos

Nombre/izena

E-posta/Correo elec.

NAN/DNI

1.

2.

C ORDEZKARIEN DATUAK (kasua bada)/PERSONAS AUTORIZADAS PARA EL ENVIO DE FACTURAS (si fuera el caso)

Abizenak / Apellidos**Nombre/izena**

E-posta/Correo elec.

NAN/DNI

1.

2.

D BANKUKO DATUAK / DATOS BANCARIOS

IBAN:

[illegible]**TITULARRA /**

TITULAR:.....

Oharra: Emandako kontu-zenbakiaren titularra hirugarrentitular bera izango da.

Nota: La persona titular del número de cuenta facilitado deberá coincidir necesariamente con la parte titular.

BANKUAREN ADOSTASUNA(sinadura eta zigilua)

Conforme banco (sello y firma)

Banku-erakundearen sinaduraren eta zigiluaren ordezt, hirugarren interesduna banku-kontuaren titularra dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu ahal izango da

La firma y sello de la entidad bancaria podría ser sustituido por documento del banco que acredite que el/la tercero/a interesado/a es el/la titular de la cuenta bancaria.

Dokumentu hau sinatzen duenak dokumentu honetan zehaztutako datuak egiazkoak direla ADIERAZTEN DU, eta bere gain hartzen ditu emandako datuetan zehaztasun-gabetasunen bat jartzearen ondorioz erator daitezkeen erantzukizunak.

Quien suscribe **DECLARA:** que los datos especificados son ciertos, asumiendo en caso contrario las responsabilidades que pudieran derivarse de las inexactitudes que consten en el mismo.

Halaber, **BAIMENA EMATEN DU** Estatuko, Foru eta Udal Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrarekiko zerga-zorren ziurtagiriak kontsultatzeko eta/edo jasotzeko.

Asimismo, DA SU CONSENTIMIENTO para consultar y/o recabar el o los certificados de deudas tributarias con la Hacienda Estatal, Foral y Municipal, así como con la Tesorería General de la Seguridad Social.

Data, sinadura, sinatzailearen izena eta NANa (adjuntar DNI y representación)



Elorrioko udala

- **Arduraduna:** Elorrioko Udala - dpo@elorrio.eus / **Datuen babeserako delegatua:** Grupo Unive Servicios Jurídicos SL dpo@elorrio.eus
- **Helburua:** fakturen, kontabilitatearen eta diruzaintzaren gaineko kudeaketa egin ahal izateko administrazio eta kontabilitateko datuak emotea.
- **Legitimazioa:** helburu honetarako tratamendua egiteko emondako baimena.
- **Kontserbazioa:** datuok aipatutako helburua betetzeko behar den denboran zehar kontserbatuko dira, betiere, arxibo aplikagarriaren araudiak zehazten duena errespetatuz.
- **Hartzaileak:** arduradunak gaian eskumena duten agintariei jakinarazi ahal izango die.
- **Eskubideak:** eskatzaileak baimena ezeztatu dezake, sartze-, zuzentze-, mugatze- ezabatze-, aurkaratze edo eramangarritasun-eskubideak erabili ahal izango ditu Elorrioko Udalari idatziz eskatuz erregistroanurkeztutako idatzi bidez edo datuen babesa duen delegatuari eskatuz (dpo@elorrio.eus) idatziz eskatuz NANaren kopia edo sinadura elektronikoa aitortua erantsi beharko dira.
- **Erreklamazioa:** Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean erreklamazioa aurkeztu ahal izango da

Conforme al Reglamento 2016/679 General de Protección de Datos y LO 3/2018, de 5 de diciembre (LOPDGDD), informamos a la persona solicitante que trataremos los datos personales en los términos siguientes:

- **Responsable:** Ayuntamiento de Elorrio - dpo@elorrio.eus / **Delegado de Protección de Datos:** Grupo Unive Servicios Jurídicos S.L. dpo@elorrio.eus
- **Finalidad:** aportar los datos administrativos y contables necesarios para llevar a cabo la gestión de la facturación, contabilidad y Tesorería.
- **Legitimación:** El consentimiento otorgado para el tratamiento por esta finalidad.
- **Conservación:** Los datos se conservarán durante el tiempo estrictamente necesario para cumplir con la finalidad mencionada, respetando en todo caso el que determine la normativa de archivo aplicable.
- **Personas destinatarias:** La responsable podrá comunicar a las autoridades competentes en la materia.
- **Derechos:** Las personas solicitantes pueden revocar el consentimiento, ejercer los derechos de acceso, rectificación, limitación, supresión, oposición o portabilidad, dirigiéndose por escrito al registro del Ayuntamiento de Elorrio sito en Herriko Plaza, s/n, 48230 Elorrio o a la o el Delegado de Protección de Datos dpo@elorrio.eus. Será necesario adjuntar una fotocopia del DNI o firmar el correo electrónico con una firma electrónica reconocida. / Reclamación: Puede presentar una reclamación ante Agencia Vasca de Protección de Datos (<https://www.avpd.euskadi.eus/>).